



Denbora-

1 Hizki salda

Lapikoan
agertzen diren
hitz horiek
laukiko hizkien
artean ezkutatu
ditu Eiderrek.
Non diren
ikusten al
duzu?



2 Itzalak

Asierrek gitarra bat nahi zuen,
eta Olentzerok marrazkikoa
ekarri dio. Itzal hauetatik
zein dagokio Asierren
gitarrari?

3 Ezberdintasunak


Amaiur txikiari opari
ugari ekarri dizkio
Olentzerok. Opariak
zabaltzen ari zen
bitartean bi argazki
atera dizkiogu.
Bigarren irudian
zazpi aldaketa
egin ditugu.
Zein?



- pasak


4 Bikiak

Zigor bere izenaren hasierako letra duen bisera bat erostera joan da dendara. Bisera guztiek zuten berezitasunen bat; bi berdinak ziren, baina. Zein?



5 Aurkitu irudian

Xabinok askotariko aiztoak erabiltzen ditu harategian. Irudian hiru labana mota bi bider agertzen dira. Zein?



Klariona arteko lehia

Zabaldu ongi begiak eta argi ibili, txanponik gabe geratu nahi ez baduzu behintzat



- 1** Jokalari bakoitzak klariona bat eta 10 kartulina biribil hartuko ditu. Kartulina horiek txanponak izango dira. Jarraian, jokalariek jokalekuko txokoren batean gorde behar dute.
- 2** Guztiak ongi ezkutatuta daudenean, jokalarietako batek txistu egingo du, eta jolasten hasiko dira. Jokalari bakoitza beste jokalari bat aurkitzen ahaleginduko da, eta, topatzen duenean, klarionarekin margotzen saiatuko da.
- 3** Klarionaren marka besoetan edo hanketan egin badio, klarionaren marka duen jokalaria txanpon bat emango dio besteari. Marra, baina, gorputzean egin badio, 2 txanpon itzuli beharko dizkio. Ezin da margotu sorbaldaren gainetik.
- 4** Txanpon guztiak galtzen dituen jokalaria kanporatua izango da.
- 5** Bi jokalari *borrokan* ari diren bitartean, hirugarren bat etorri, eta margo ditzake. Jokalari marra non egin dion begira dagoenean edo txanponak jasotzen ari denean, jokalari horrek ezin dio beste inori inolako markarik egin, eta bera ere ezin dute margotu.
- 6** Jolasteko denbora agortzen denean, jokalari bakoitzak zenbat txanpon bildu dituen zenbatuko du. Txanpon gehien dituen izango da garaile.